





# Turista arduratsuaren dekalogoa

Eskaneatu QR kodea TURISTA ARDURATSUAREN DEKALOGOA ezagutzeko.

# Aupa!

Bikepacking eginez, edo besterik gabe euskal autonomia-erkidegoko hiru hiriburuetako edozeinetatik zure errepide-bizikletarekin abiatzen bazara, Euskadi bertatik bertara ezagutu eta dastatu ahal izango duzu **Euskadi Cycling** proposamenaren bidez.

Hiri kosmopolitak, arrantza-herriak edo Erdi Arokoak deskubrituko dituzu. Bidaiari itsaso usainarekin ekin edo goizeko lainoa mendiz inguratutako haran batean nola lausotzen den ikusiko duzu.

Euskadiko gastronomia famatua arrantza-portu bateko jatetxe batean dastatu edo hotel-gela bateko terrazatik eguzkia mahasti-muino batean nola sartzen den behatuko duzu.

Oraindik ere badira zure bisitaren zain dauden txoko bereziak.



# The Basque Route

Euskadiko errepide eta paisaietatik garatzen den Bikepacking proposamen bat da **The Basque Route.**

8 etapatan banatuta, bidaiariak Euskadik eskaintzen duen eskaintza osoenaz gozatu ahal izateko pentsatuta dago bidea, bizikletan joateak ematen duen askatasunarekin.

| ETAPAK | Distantzia | Desnibela |
| --- | --- | --- |
| 1. Bilbo → Lekeitio | 113 km | +1.809 m |
| 2. Lekeitio → Zarautz | 81 km | +1.281 m |
| 3. Zarautz → Donostia | 83 km | +1.358 m |
| 4. Donostia → Gasteiz | 130 km | +1.641 m |
| 5. Gasteiz → Guardia | 105 km | +1.440 m |
| 6. Guardia → Urduña | 141 km | +1.706 m |
| 7. Urduña → Bilbo | 93 km | +1.194 m |
| 8. Lekeitio → Gasteiz | 103 km | +1.486 m |



# Mendate mitikoak

Euskadin mendateak igotzea Kantauri itsasoko ertzetik isurialde mediterraneora igarotzeko landaredi-aldaketa hori sentitzea da, haran batetik bestera pasatzerakoan belarraren usaina hartzea, beste txirrindulari batzuk pasatzen direnean "aupa!" oihua entzutea…

| | Mendatea | Distantzia | Batez besteko pendiza |
| --- | --- | --- | --- |
| 1 | ORDUÑA | 8 Km | % 7,5 |
| 2 | HERRERA | 5,6 Km | % 8,3 |
| 3 | ARRATE | 6,4 Km | % 7 |
| 4 | JAIZKIBEL | 9,8 Km | % 4,5 |
| 5 | URKIOLA | 6 Km | % 9,2 |
| 6 | OIZ | 5,2 Km | % 11 |

The Basque Route
Bideak **BILBOTIK**
Bideak **GASTEIZTIK**
Bideak **DONOSTIATIK**
Bideak **EIBARTIK**

# Gastronomia

Bizikletan ibiltzen bazara, indarrak berritu egin beharko dituzu nahitaez, eta zer toki hobeagorik horretarako Euskadi eta bertako gastronomia ospetsua baino.



EUSKADI gastronomika

# Dorletako Ama Birjina

## Geldialdi bat "Zaindaria" agurtzeko

1960ko abuztuaren 8an, urte pare bat lehenago haien aurrekoek Dorletako Ama Birjina "txirrindularien Zaindari" izendatzeko batzorde bat sortzeko izan zuten ideiarekin jarraituz, Luis eta Ángel Serrano zikloturista gazte bilbotarrak eta José Luis Sáenz de Olazagoitia gasteiztarra bizikletaz joan ziren Erromaraino Joan XXIII.a aita santuak –"Aita Santu Onak"– bertan hartu zitzan, ziklismozale handia baitzen Joan XXIII.a, eta Gino Bartaliren "tifossia", nola ez ba! Beren txirrinduetako alportxetan zeramaten Dorletako Ama Birjina Espainiako ziklisten Zaindari izendatzeko deklarazio kanonikoaren eskaria, eta hilabete bereko 28an gauzatu zen aldarrikapena.

Urte osoan izaten dira bertan ziklista ugari, nahitaezko geldialdia egin behar baita bertan Arlaban mendatearen gainean errepide bazterrean dagoen "Zaindaria" agurtzeko, eta ondoko Leintz-Gatzaga herrian hari eskainitako santutegia bisitatzeko, betiere mota guztietako ziklista profesionalek, zikloturistek eta herrialde osoko txoko guztietatik etorritako hainbat klubek egindako eskaintzez beteta dagoen santutegia bisitatzeko, hain zuzen ere.

# Segurtasunez eragin pedalei

**Kaskoa**
Erabili beti kaskoa. Eraman beti jarrita eta behar bezala lotuta.

**Arropa**
Jantzi arropa egokiak, kolore biziak, elementu islatzaileak.

**Argia**
Jarri argi gorri bat bizikletaren zela-tutuan zure presentzia seinaleztatzeko.

**Segurua**
Kontratatu istripu-aseguru bat zure bidaia-agentzian.

**Ura eta janaria**
Eraman beti ura eta jateko zerbait biderako.

**Larrialdiak**
Istripurik edo larrialdirik izanez gero deitu **112** telefonora.

# 1 Bilbo → Lekeitio

Basque Routeren lehenengo etapan urarekin dugu hitzordua. Guggenheim Bilbao museoaren alboan aurkituko duzue, munduan bakarra den zubi esekiraino jarraituko duzue eta egun osoan ez diozue alde egiten utziko. Hondartzak blaitzen ikusiko duzue, uharteen inguruan dantzan, itsas labar basatiak kolpatuz, arrantza-herriak inguratuz edo ezinezko itsasadarrak marratuz, hala nola Urdaibaikoa. Ongi etorri Kantauri itsasoaren ertzeko Bizkaira.

**113 km**
Desnibela **1.809 m**




# 2 Lekeitio → Zarautz

Prest Euskadi berdearekin maite-jolasean ibiltzeko? Mendiak dituen, haranen tolesturetan ezkutatzen den, eta baserri bakartiak gordetzen dituen Euskadirekin. Aurrera. Egunsentia Kantauri itsasoarekin jasoko duzue, ziur asko haran batean jango duzue, Urola ibaiarenean, mendien artean ezkutatua, eta azkenik sagu forma duen muino baten ondoan afalduko duzue.

**81 km**
Desnibela **1.281 m**




# 3 Zarautz → Donostia

Gipuzkoan zaudete. Arrain freskoaren parrilladak eragiten duen usainarengatik jakingo duzue, duela 2.000 urte erromatarrek utzi zituzten aztarnengatik, bertan egiten dituzten pintxoak direla-eta New York Times liluratua utzi zuen herri batengatik eta Jaizkibeldik igaro ondoren fiordo batean sartutako Venezia dirudien beste herri batengatik. Bai, Gipuzkoan zaudete, mundu guztiaren ahotan dagoen hondartza horren lurraldean, Kontxako hondartzaren lurraldean.

**83 km**
Desnibela **1.358 m**




# 4 Donostia → Gasteiz

Euskadin 'gero arte' esaten da agurtzeko. Hortaz, 'gero arte' esan itsasoari, Euskadiren barrualdera baitzoazte, larre eta pagadien, sagardotegien eta edalontzien topa alaien lurraldera. Leintz Gatzagara –Araban sartu aurreko Gipuzkoako azken herrira– hurbiltzen gaituen malda gogorra gainditu ondoren, bidea beste inolako zailtasunik gabe iritsiko da Gasteizera, 'green' hirira.

**130 km**
Desnibela **1.641 m**




# 5 Gasteiz → Guardia

Badago topikoetatik ihesi doan eta gaur ezagutuko duzuen Euskadi bat. Prest zaudete zereal-soro zabalen artetik bizikletaz ibiltzeko? Prest dolmen bat eguzki-loreen artean ikusteko? Eta mahasti-itsaso batean 'bainatuko' bazinatekete? Herri harresitu bat, lurrazpiko bodegetako ardo-dastaketak eta gure lurraldeko arkitektura harrigarriena duzue zain.

**105 km**
Desnibela **1.440 m**




# 6 Guardia → Urduña

Ez da erraza Arabako Errioxatik joatea, inola ere ez. Haren oroitzapena arintzeko, Herrerako mendate mitikotik zeharkatuko dugu eskualdea, bertatik Ebro ibaiaren haranaren panoramika ikusgarria lortuko duzue, eta paisaia gatzatu bat eta txapela kentzeko moduko ur-jauzi pare bat ezagutuko duzue. Duela egun batzuk ezagutu zenuten ibai baten iturburua ere ikusiko duzue: Nerbioi ibaia, Bilboko erdialdea itsasorako bidean zeharkatzen duena.

**141 km**
Desnibela **1.706 m**




# 7 Urduña → Bilbo

'Botxoa' zain duzue, baina lehenagotik Bizkaiko oso ezaguna ez den txoko bat bisitatuko duzue, Enkarterri, eta aztarna uzten duen lurpea, Karrantza haranekoa. Itsasoa ikusiko duzue berriz ere eta, bai, azkenean abestu ahalko duzue 'Santurtzitik Bilbora' kanta ezaguna, gaur esperientzia hori bizi egingo baituzue. Bere horretan. Ur-bazterretik. Berna erakusten? Batek daki…

**93 km**
Desnibela **1.194 m**




# 8 Lekeitio → Gasteiz

Euskadi magiko bat da gaurko menua. Hainbeste egun ez dituztenentzat lotura gisa baliagarria den etapa honetan, Bizkaiko kosta malkartsuak utziko ditugu Euskadiko hiriburu Gasteizerako bidean, horri esker kontrastez betetako lurralde bat ikusteko. Urkiolako mendate mitikoa zain dugu harrizko erraldoien artean barne-itsaso zoragarri horretara iritsi baino lehen, zereal-soroen eta legendazko enklabeen artean oraingoan.

**103 km**
Desnibela **1.486 m**







turismoa.euskadi.eus/eu/

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Diseinua: EPS Comunicación

% 100 birziklatutako paperean inprimatua, FSC ziurtagiriduna.

# Bi1 Bilbo

## Urduñako itzulia

Bizkaiko barrualdean sartuko gara, Urduñako udalerri historikoaren bila, probintzian hiri-titulua duen herri bakarrera iristeko. Bertan hasten da izen bereko mendate enblematikoa, gailurra Gaztelako lurretan daukana.

**169km**

Desnibela **2.083m**






# VG1 Gasteiz

## Uribarri Ganboako urtegiko itzulia

Ia zailtasunik gabea, ziklisten trafiko handieneko ingurunetako bat izango da ziur asko Uribarri Ganboako urtegia, eta ohikoa izaten da bertan txirrindulari profesional bat baino gehiagorekin han entrenatzen ari dela topo egitea.

**47km**

Desnibela **176m**




# D/SS1 Donostia

## Getariako Saguari (San Anton) itzulia

Donostian bazaude, ezin duzu itzuli hau pasatzen utzi. Gipuzkoako kostaldea zain daukagu eta badirudi haren “saguak” bizkarra ematen digula Getariatik igarotzerakoan. Errepide gorabeheratsua, azken pinoi hain beldurgarri horiek erabiltzera behartuko gaituen igoeraren batekin, hala nola Igeldokoaren kasuan.

**71km**

Desnibela **852m**




# D/SS2 Donostia

## Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko muga

Gipuzkoako barrualdetik doan proposamen honetan Nafarroako mugetan sartuko gara, non basoen handitasunak eta baso horien landarediak harrituta utziko duten ziklista bat baino gehiago. Hernani igaro ondoren errepideek trafiko-dentsitate txikia dute eta, hori horrela, handiagoa izango da gozamena.




**131km**

Desnibela **1.871m**



# Bi2 Bilbo

## Gaztelugatxeko San Joan

Euskal Kostaldetik ibiltzeko ametsa hementxe beteko dugu, Bizkaiko kostaldearen zati handi bat zeharkatzearekin batera. Atzealdean, igoerez eta jaitsierez jositako gure ibilbide gorabeheratsuaren lekuko da Gaztelugatxeko San Joan.




**131km**

Desnibela **1.566m**



# VG2 Gasteiz

## Herrerako itzulia

Ia trafikorik gabeko errepideak, kontrastez betetako natura-ingurunean. Kantauri itsasoko ertzeko baso berdeetatik jada isurialde mediterraneoan dagoen Arabako Errioxako okre koloreko mahastietara igaroko gara, eta Herrerako mendate panoramikoa igoko dugu bertatik.

**112km**

Desnibela **1.935m**






# E1 Eibar

## Arrateko igoera

Eibarri buruz hitz egiten dugunean, herri armaginaz, bizikleten fabrikazioaz, Itzuliaz, Arrateko gainean besoak jaso dituzten txapeldun handiez, eta abar, ari gara. Orbea, BH edo GAC markek eta hain ezagunak ez diren beste batzuek –hala nola Abelux, Saeta, Invicta edo Norma etxeek– Gipuzkoako herri honetan ekin zioten beren ibilbideari. Txirrindularitza-zaporeko bide zirkular bat planteatzen dugu borrokaldi handien agertokian, bi protagonista nagusi izango dituena: Oiz (aukerakoa) eta Arrate amaiera gisa, baina beste zenbait igoera gutxietsi gabe, hala nola Elgeta Angiozartik, Montekalbo, Gontzagarinaga edo San Migel Markina-Xemeindik.

**117km**

Desnibela **2.696m**






# Mendate mitikoak

## 1 Urduña

**8km**

Desnibela **606m**

Altitudea **902m**

Batez besteko pendiza **% 7,5**

Koefizientea **145**

Bizkaiaren eta Burgosen arteko muga-lurretan kokatua, “hiru handietako” bat dugu Urduña, Urkiolarekin eta Herrerarekin batera. Azpimarratzekoa da Espainiako Vueltan hamahiru aldiz igo dela, eta erabakigarria izan zen lehenengo edizioetan, 1960. urte inguruan, itzuli hori normalean Euskadin bukatzen zenean.




## 2 Herrera

**5,6km**

Desnibela **469m**

Altitudea **1.101m**

Batez besteko pendiza **% 8,3**

Koefizientea **128**

Araban dago osorik, saiatze soila ere erronka ederra da, eta % 14ko pendiza duen zuzengune nabariak txantxetan ez gabiltzala adierazten digu. Gailurretik kilometro eskasera, ezkerretara dagoen bidegurutze txiki batean, pasatzen utzi ezin dugun Errioxako balkoi panoramikoa dugu.




## 3 Arrate

**6,4km**

Desnibela **452m**

Altitudea **581m**

Batez besteko pendiza **% 7**

Koefizientea **124**

1941. urtetik aurrera, punta-puntako hainbat txirrindulari saiatu dira eta aurkitu dute ospea igoera mitiko honetan, hala nola Bahamontes, Poulidor, Ocaña, Roche, Indurain, Bugno, Olano, Beloki, Purito, Contador edo azken irabazlea, Izagirre euskal ziklista 2022ko Itzulian. Arrate ez da soilik igoerari izena ematen dion santutegi bat, baizik eta ziklismoaren santuegia da oro har, zikloturistek gehien igotzen duten gailurretako bat, Stravako datuek erakusten dutenez.




## 4 Jaizkibel

**9,8km**

Desnibela **449m**

Altitudea **453m**

Batez besteko pendiza **% 4,5**

Koefizientea **92**

Ez da gogorrenetakoa, bai, ordea, bista hoberenak dituena. Hondarribiko eta Lezoko herri ederren artean itsasoari begira, benetako gozamena da mendatearen igoera zikloturistentzat. Abuztuan nazioarteko egutegiko klasiko bat hartzen du Donostiak, eta gure protagonista da lasterketako mendate nagusia eta lasterketaren beraren nortasun-ezaugarria.




## 5 Urkiola

**6km**

Desnibela **554m**

Altitudea **754m**

Batez besteko pendiza **% 9,2**

Koefizientea **161**

Punta-puntako hainbat ziklistak –Marino Lejarreta, Andrew Hampsten, Perico Delgado edo Claudio Chiappucci ospetsuek, besteak beste– jaso dituzte besoak Bizkaiko lurraldean dagoen igoera mitiko honetan. 6 kilometro eskaseko mendatea % 9tik gorako batez besteko pendizarekin. Ausartzen zara?




## 6 Oiz

**5,2km**

Desnibela **604m**

Altitudea **1.019m**

Batez besteko pendiza **%11**

Koefizientea **259**




% 11ko batez besteko pendizarekin, Oizko mendatea Euskadiko erreferentziazko mendateetako igoera gogorrena dela esan dezakegu. Michael Woods kanadarrak 2018ko Vueltako hamazazpigarren etapan lortutako garaipena historiarako geratuko da, edizio horretako bederatzi etapa-amaiera berritako bat izateaz gain euskal zale apartek ziklistak etxean bezala sentiarazi zituztelako, ziklistak beren paretik igarotzen zirenean kremailera bat bezala zabalduz. Vueltako zuzendari Javier Guillén-ek honela laburbildu zuen: «Oiz aurkikuntza bat izan da».

*Datuak eta altimetriak www.altimetrias.net webgunean lortu dira.